# Gure gazteak, kirolari









## Barruan, hauteskundeen gehigarria


Udal hauteskundeak
2011ko maiatza

Ermuko zinegotzi berriak

# drogetenitturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 190. alea 2011ko maiatza

Batxilergoa
BATXILERGOA

Bigarren Hezkuntzako Institutua

A eta D ereduak

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
GIZA ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

Goi Mailako Prestakuntza Zikloak
GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

AURREMATRIKULA
Zikloak:
Ekainaren 1etik 10era

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
AKTIBITATE FISIKO ETA KIROL ANIMAZIOA
SISTEMA INFORMATIKO ETA SAREEN ADMINISTRAZIOA
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

Erdi Mailako Prestakuntza Zikloak
ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK
MERKATARITZA

Arautu Gabeko Heziketa
ARAUTU GABEKO HEZIKETA

HEZIKETA JARRAITUA
ZEREGINETAKO HEZIKETA
ESKAINTZA PARTZIALA

EIBAR·ERMUA
IES·BHI

ONGARAI AUZOA Z/B. 48260 ERMUA (BIZKAIA) 943 17 62 57
OTAOLA HIRIBIDEA, 29. 20600 EIBAR (GIPUZKOA) 943 20 84 44
WWW.IESUNIBHI.COM UNI@IESUNIBHI.COM

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IMH
Elgoibar

ingeniaritza
imh
ei.cesi

Heziketa Zikloak /
Txandakako Ingeniaritza



Ate irekiak:
maiatzak 28
11:00etan

Etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaitez www.imh.es orrian
IMH, Azkue auzoa – 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

***ARGITARATZAILEA:***

**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**

***HELBIDEA:***

**Erdikokale 2, 1. (Elexoste)**
**247 posta–kutxa**
**943 17 93 50.**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.org**

***ERREDAKZIO TALDEA:***

**Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga eta Dorleta Vidal.**

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***

**Dorleta Vidal.**

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***

**Alazne Aiestaran.**

***AZALEKO ARGAZKIAK:***

**Asier Ibaibarriaga, Ane Loiola eta Dorleta Vidal.**

***LAGUNTZAILEAK:***

**Amaia Arriaga, Ana Gómez, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Pello Mugarza eta Valentin Mugarza.**

***ARGAZKIAK:***

**Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Pantxo Bedialauneta, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga, Ane Loiola, Urko BTT eta Dorleta Vidal.**

***PUBLIZITATEA:***

**688 63 28 76.**

***INPRIMATEGIA:***

**Gertu Koop. (Oñati).**

***BANAKETA:***

**Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.**

***TIRADA:***

**2.200 ale.**

***ISSN:***

**1133–973X.**

***LEGE GORDAILUA:***

**SS–213/94.**

***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko hegaztiak

*...Fede Iturriagagoitiak batuta*

## URMAKINISTIA

**Martín pescador *Alcedo atthis***

Ze hegazti dotorea den, bere lumatza urdinxka distiratsuarekin! Ze xelebrea bere izena: trenaren besteko abiadurarekin mugitzen delako ote? Etengabeko 'ti-tiiit' bat egiten du urduri dagoenean eta ikustekotan errekondoetan, baina garbi eta garden daudenean. Arraintxoren bat ur-azalean ikusi orduko, dzi-dza!, dagoen arroka edo adarretik, txinparta baino arinago egingo du joan-etorria. Trebea da arrantzan; pazientziarik ez zaio falta eta kainabera ere soinean du beti: sastakai beldurgarriena legez, bere moko luze zorrotza erabiltzen du arrain harrapaketan. Ermuko tren-geltokiko zubi azpian bertan ikusita nago, errekan harutz-honutzean, baina orain erreka guztiak porlanez tapatuta ditugunez, Eitzaga edo Mallabia aldera jo behar.



# Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO ................4
Urko mendiko txirrindulariak

ELKARRIZKETA ..............5-7
Mikel Martín

MALLABIAN ZER? ........8-9
Ane Loiola

MOTZEAN ..................10
Lortu dugu!

**UDAL HAUTESKUNDEEN GEHIGARRIA......11-14**

ERMUAN ZER? ............15
Pantxo Bedialauneta

BOTEPRONTOAN ........16
Begoña Laka

KIROLZALE .................17
Harrijasotzaile gazteen harrobia

IRITZIA ........................18
Zergatik jasan behar usainak?

SALEROSKETAK ............19
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA ........21
Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak

AGENDA ....................22
Ekaineko agenda

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# Urko mendiko txirrindulariak

**Mendiko bizikleta zaleak biltzen dituen talde honek 20 urte inguru ditu. Igandero irteerak egiten dituzte eta dagoeneko Santixauetako irteera prestatzen hasiak dira. Aurreko urteetan bezala, 160 lagunetik gora Ermura hurbiltzea espero dute.**



***- Zein urtetan sortu zen taldea?***

Duela 20 urte jaio zen. Gure aurretik ez zegoen 'mountain bikeko' talderik herrian, gaur egun badira beste batzuk.

***- Zenbat kide zarete?***

34 lagun gara, 19 eta 51 urte bitartekoak denak. Gazteek lekukoa hartzea nahi dugu, taldeak jarraipena izan dezan eta momentuz, horrela izango dela dirudi. Pozik gaude.

***- Zeintzuk dira zuen helburuak?***

Kirola egitea eta bizikletaz eta gure inguruneaz disfrutatzea dira gure helburuak. Ez dugu lehiatzen.

***- Zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?***

Urte osoan zehar irteera herrikoiak egiten ditugu, igandero. Plazan elkartzen gara, 9.00etan, eta gure webgunean aurretik iragarritako ibilbidea egiten dugu (www.urkobtt.com). Edozeinek har dezake parte mendi martxa hauetan, bizikletan gutxieneko trebetasuna badu, jakina, eta taldekoak guztion erritmora moldatzen gara, inor atzean gera ez dadin. Horretaz gain, urteko azken domekan Urkora igotzen dugu eta tontorrean turroia jan eta xanpaina edaten dugu. Ez diogu eguraldiari erreparatzen: aurten elurra egon da tontorrean eta hala ere ez dugu hutsik egin. Batzuk oinez etortzen dira gurekin.

***- Santixauetan parte hartzen duzue?***

Bai, jai egitarauaren barruan ibilaldi gogor bat prestatzen dugu urtero. Aurten 16.a egingo dugu eta, parte-hartzaile kopuruari erreparatuta, oso arrakastatsua dela aitortu behar dugu. Iaz 164 lagun bildu ginen eta batzuk Gasteiz edo Burgosetik etorri ziren ibilaldi hura egitera. Iazko martxa Elgetatik egin genuen eta aurtengoa Urkotik izango da. Bakoitzak modu ezberdinean hartzen ditu irteera horiek, batzuk euren burua neurtzera joaten dira eta besteek afizio moduan hartzen dute.

***- Zein maiztasunekin biltzen zarete?***

Urtean bizpahiru bider biltzen gara, kideren baten elkarte gastronomikoan, eta Santixauetako ibilaldia prestatzeko egiten ditugu bilera horiek. Lasterketak lan handia eskatzen du (ibilbidea aukeratu eta definitu, markatu txirrindulariak ez galtzeko...) eta egunean bertan 10 bat boluntario inguruk laguntza eskaintzen digu. Diru-laguntza jasotzen dugu ibilaldi hau antolatzeko eta parte hartzaileek oparitxoa jasotzen dute bukaeran.

***- Zuekin harremanetan jartzeko?***

Azken lau urteetan Alfonso Dávila da elkarteko lehendakaria eta interesa duenak berari deitu diezaioke (664464492 / 600893171).

Dorleta Vidal












**Mikel Martín, Errotabarri eskubaloi taldeko kirol-koordinatzailea:**

# "Epe motzean senior taldea osatzea da gure asmoa"

Errotabarri eskubaloi taldeko kadeteek Euskadiko emakumezkoen txapelketa irabazi dute aurten eta jubenilek brontzezko domina lortu dute. Sinestezina dirudien arren, kluba 2007an sortu zen, eta zerotik hasita, probintzial mailatik gora eginez jorratu dute bidea Ermuko neskek. *"Jokalari gutxi ditugu* -dio Mikelek-, *baina kalitate onekoak"*. Horren adierazle Arantza Moreno da: ligako jokalaririk onenaren eta goleatzaile handienaren sariak jaso ditu. Gainera, Irene Onekarekin batera Espainiako selekzioarekin jokatzeko aukera izan du. Jubenilen entrenatzailea da Mikel eta berarekin errepasatu dugu taldearen historia laburra eta erronka berriak.

***- Ermuan nesken eskubaloiak arrakasta izan du betidanik. Zer dela eta?***

17 urte daramatzat neskak entrenatzen eta betidanik egon da zaletasun hori Ermuan. Baina egia esan, ez dakit nondik datorren, ezta zergatik galdu den azken urteetan ere.

***- Duela urte batzuk bazegoen herrian nesken talde indartsua. Zergatik desegin zen?***

Talde horrek 25 urte zituen eta oso sendoa zen. Seniorra emakumezkoen lehen maila nazionalera igo zen, ni entrenatzaile nintzela. Lorpen handia izan zen, 'etxeko' kirolariekin lan egiten genuelako, baina klubeko orduko zuzendaritzak erabaki batzuk hartu zituen, hala nola atzerritarrak eta dirutza kobratzen zuen entrenatzailea kontratatzea, besteak beste. Behar baino diru gehiago gastatu zen eta gestio txar horren ondorioz, taldea kaudimengabea zela aitortuta desegin zen.

***- Errotabarrik lotura izan zuen talde horrekin?***

Ez. Garai horretan maila baxuagoetan zebiltzan nesken gurasoek zerbait egin behar zutela erabaki zuten, euren alabak eskubaloian jokatzen jarraitu ahal izateko. Klub berria sortzea erabaki zuten, zerotik hasita, eta gure bi taldeek probintzialetik hasita, Euskal Ligara heldu dira 4 urteko epean. Gainera, Espainiako txapelketan parte hartzea lortu dute biek eta iaz, kadeteek estatuko 4. postua eskuratu zuten. Harritzekoa!



Errotabarri klubeko jubenilak

***- Bi kategoria horiekin bakarrik egiten duzue lan?***

Ez. Lehenengo urtean kadeteen bi talde eta infantilen talde bat ere bazegoen. Bigarrenean, berriz, 6 talde egin ziren: jubenila, 2 kadete, infantila, alebina eta benjamina.

***- Oinarrizko kirola lantzea ezinbestekoa da?***

Bai. Garai batean Ermuko eskola guztietan neskatoek eskubaloian jokatzen zuten. Neska aski eta soberan zeuden eta klubean sartu ahal izateko probak egiten ziren. Gaur egun, dinamika hori berreskuratu nahi dugu. Ume-umetatik neskak eskubaloia praktikatzen hastea nahi dugu, benjamin, alebin eta infantil mailetako taldeak osatzeko zailtasunak izan ditugulako. Neska gehiago behar dira.

***- Gehiegi ez diren arren, kalitatezkoak direla diozu, ezta?***

Bai, jokalari gutxi ditugu baina oso onak dira.

***- Jokalariren bat bestengandik nabarmentzen da?***

Duda barik Arantza Moreno. Euskal Liga 2010/2011ko jokalaririk onena izendatu dute eta txapelketako golegile handiena izan da. Atletismoa ere praktikatzen du eta kirol bietan ikaragarria da: eskubaloi eta atletismoko Espainiako selekzioetan dabil! 2016an joko olinpikoetan egongo da seguruenik. Baina entrenamendu larregi ditu, azken bi urteotan ez baitu atsedenik hartu, eta horrek ondorioak izango ditu gero.

***- Bata ala bestea aukeratu beharko luke?***

Bai, baina ez du nahi. Kirol batek ematen ez diona, besteak ematen dio. Atletismoa indibidualagoa da eta bertan esfortzua eta nork bere burua gainditzea bilatzen da. Eskubaloia, berriz, taldean jokatzen da, ez da hain lehiakorra eta dibertitu egiten da. Gorputz-baldintza ikaragarriak ditu neska horrek, baina gurekin ez du behar beste entrenatzen.

***- Ez da leku guztietara heltzen, ezta?***

Ez. Hemen askatasuna ematen diogu eta Durangoko atletismo klubean ere, bertan sartzeko baldintza hori eskatu baitzuelako.

***- Zure ustez, zein aukeratu beharko luke?***

Atletismoa. Marka guztiak hautsi ditu jadanik eta kirolari moduan bere burua gainditzeko aukera gehiago emango dizkio.

***- Taldean falta denean igartzen da?***

Bai, gainera taldeak 'Arantza-menpekotasuna' duela esan daiteke, psikologikoa,

## "Arantza Moreno ikaragarria da. 2016ko joko olinpikoetan egongo da seguruenik"

komunitateak aseguruak
San Pelayo
aholkularitza fiskal eta juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

hainbat kasutan. Taldea 'egiten' eta bultzatzen daki.

***- Jubenilak adina gainditzen dutenean ez dute Ermuan jokatzen jarraitzeko aukerarik. Senior taldea osatzeko asmorik bai?***

Momentuz, oinarrizko kirola landu nahi dugu baina epe motzean senior taldea egiteko asmoa dugu, bai. Aurten saiatu gara baina ezinezkoa izan da. Datorren denboraldian, taldea osatu beharra daukagu derrigorrez. Kanpoko jendearekin taldea osatzea posible litzateke, baina gure neskekin egiten ari garen lanari jarraipena ematea da gure asmoa. Bloke zentrala mantentzea nahiko genuke.

***- Orain arte Errotabarrin egondako neskak nora joan izan dira jubenilen adina gainditzen zutenean?***

Iaz lehen urtea izan zen eta 7 neskek gainditzen zuten adina, baina 4k besterik ez zuten jarraitzeko asmoa. Horrekin taldea egitea ezinezkoa da. Taldearekin inplikazioa mantentzea eskatu diegu (beste talde batzuk entrenatzen edo jubenilekin entrenatzen, esaterako), urtea ez galtzeko, eta datorren denboraldian senior talderako jokalari horiek berreskuratzea espero dugu.

***- Zertan datza kirol-koordinatzaile lana?***

Beste entrenatzaileekin bilerak egiten ditut, denok lan ildo bera jarraitu dezagun. Mailaren arabera, neskek ikasi beharreko helburuak finkatzen dira eta betetzen direla ziurtatu behar dut. Taldeen arteko komunikazioa ezinbestekoa da, denok norabide bera jarraitzeko.

## "Zuzendaritza taldeak bere lana egiten du eta kirol kontuak nire eskuetan utzi dituzte"

***- Zuzendaritzarekin harremanik baduzu?***

Bai, eta egia esan poz-pozik nago eurekin. 10 lagun inguruko taldea da. Langileak dira, oso konpetenteak, eta euren beharrak besterik ez dituzte egiten. Kirolarekin zerikusia duen guztia, nire eskuetan utzi dute. Eurekin egon daitekeen arazo bakarra zera da, gurasoak direla, jokalarien gurasoak alegia. Eta alabek jokatzen duten bitartean bertan daude eta egongo dira. Baina alabek lagatzen dutenean agian inplikazioa ere ezberdina izango da. Talde horri jarraipena eman behar zaio.

***- Jokatutako partiduetan jarraitzaileak izan dituzue bidelagun?***

Beno, lehen zegoen afizioa berreskuratu nahiko genuke, kiroldegia beteta ikusteak indar handia ematen duelako. Horregatik txapelketak Ermuan antolatzea eskatzen dugu maiz, nahiz eta horrek diru kostua duen.

***- Denboraldia bukatu duzue?***

Ez, Bizkaiko kopako finalaurrekoetan daude bai kadeteak eta baita jubenilak ere. Maiatzaren 29an jokatuko da eta talde biek irabaztea espero dugu.

Dorleta Vidal


Errotabarri klubeko kadeteak, Aitor Muiños entrenatzailearekin

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak
UDAL EUSKALTEGIA
Teresa Murga, 2. solairua
Tel. 943 17 09 25

TELEFLOR INTERNATIONAL
Zubiaurre 14
Telef. 943 17 28 88
48260 ERMUA
EGUZKILORE

Quetzal
Arropa, bitxiak, opariak... zer ez!
Goienkale 9 · ERMUA
943170065


ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA
EGAÑA
ALDAGAILUAK
GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK
DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

TXALAPARTA TABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua)
ENKARGVAK 943 030 299

## Ane Loiola:

# "Euskara eta hizkuntza indigenen aldeko jaixe egin gendun Ekuadorren"

**Ane Loiola mallabitarrak Ekuadorren pasau dittu azken hiru hillebetiek. Bueltan bere esperientzixian barri jakin nahi izen dogu.**

***- Zer dala ta juen zinen Ekuadorrera?***

Hezkuntza Berezia ikasten nago Donostian, eta karrera amaierako praktikak kanpuen egitteko aukerie emon euskuen. Duda barik apuntau nintzen eta hasieran Saharara jueteko eskeintzie egin euskuen arren, azkenien Ekuadorrera jutie tokau jatan, beste lau ikaskidekin batera.

***- Ekuadorreko zein lekutan izen zara?***

Pastaza probintzian. Bi komunidadetan egotie egokittu jata, lehenengo hillebetie Tayun (Kito kapitaletik bederatzi ordure autobusez eta oinez) eta hurrengo bixek Putuimin (Kitotik bost bat ordure).

***- Familiaren batek hartu zinttuen?***

Bai, Putuminin familia batekin bizi izen naz, ta benetan bertako moduen sentidu eragin deustie, familixakue banintze moduen! 'Papi-Mami' deitzen neutzen hango gurasuei ta 'ñaño-ñaña' neba-arrebei!!! Eukena eta ez eukena be emon deustie han egon nazen denporan.

***- Bertako eskolak ezagutu dozuz. Zer da ikusi dozune?***

Eskola mota bi dagoz, publikuek edo elebidunek eta pribatu edo fiskalak. Eskola elebidunien egon naz ni. Baliabide urriko eskolak die. Hiru-lau mailla ezberdin batzen dittue 20 ume inguru gela bakotxien. Eta daukien apurre irakasliek berak erosittekue edo Gobernuek errekurtso gitxien daukienei emondakue baiño ez da. Gosarixe ta hamaiketakue be banatzen dabe eskolan. Eta ordenagailuek be gobernuek eskuragarri ipini arren, argindarrik bako parajietan alperrik!!

***- Eskoliaz gain, zetan emon dozu denporie?***

Asteburuek aprobetxau doguz turismo apur bat egitteko, baitte inguruko komunidadiek ezagutzeko be. Hirire jueten ginen asteburuetan eta han, gu laurotaz aparte, beste 11 euskaldunekin juntatzen giñen ta juergarako be aprobetxatzen gendun!! Sekule baiño dantza gehixa egin dot Ekuadorren, batxata, salsa, merenge, regeton… danetik!!!

***- Herriminik izen dozu?***

Bai, eta batez be hasieran. Bapatien dana zan barrixe, beste herrialde bat, beste jente bat, ohitura ezberdiñek… Sarritten deitzen naban etxera hasiera horretan. Baiña denporiaz oso gustora sentidu nintzen bertan!!

***- Korrika antolatu zenduela be jakin dogu. Zelan ba?***



Hegazkinien goiezela konturatu ginen gu han gengozan denporan izengo zala Korrika. Eta gauza sinple bat eittie akordau jakun, bakotxa bere umiekin, ariñeketan apur bat… Baiña gutariko euskaldun batek bertako psikologa batekin egin eban berba, eta han hasi zan harixek batetik eta bestetik tiretzen! Azkenien Kitxua nazionalidadeko taldetxo batekin batera antolatu gendun jaixe. Pare bat aste topera jardun giñen Calaputxa anai kitxuekin batera, eta euskera eta hizkuntza indigenen aldeko jaixe prestatu gendun. Kantue grabau, aurpegixek margotu eta ordubete inguruen 250 bat lagunek hartu gendun parte Korrikan. Zoragarrixe izen zan!!

***- Bertako talde indigenek jai honi jarraipena emoteko asmorik badauke?***

Bai!! Calaputxa anaiek lanien jarraittuko dabe, eta euren eskubide eta hizkuntza aldarrikatzeko ekimena hurrengo urtietan be egitteko asmue agertu eben.

***- Eta zuk, Ekuadorrera bueltatzeko asmorik bai?***

Gustauko jatan!! Aurtengo udan nire bi 'ñañuek' datoz Euskal Herrire eta dana ondo badoie, irailien biherrien hasi eta datorren urteko udan juetekue naz!!!

Ibaia Azagirre
eta Igone Amesti

*O eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura*
mimitos
**Zapatak, pijamak, lentzeria, aulkiak, sehaskak, tronak… behar duten guztia!**
Eta gainera 'Hello Kitty'-ren artikulu mordoa!
**Probaleku 4, Ermua · ☎ 943 033 830**

Pub Dakota

*Probaleku, z/g*
*Ermua (Bizkaia)*
*dakotaermua@hotmail.com*

## GERIA TA GOITAKO JAIXEK EKAINIEN



Geria eta Goita auzuetako jaixek ospatuko die datorren hilien. Gerikuek izengo die lehenak ekainan 16xen hasitte. San Adrian egunien bertan mezie izengo da jaixei hasierie emoteko. Hurrengo zapatuen umien txokolatadie eta txopue altzatzie arratsalde aldera. Domekan, 19xen, 11.00etan mezie ta ondoren Mallabiko dantzarixek, bertsolarixek, zelaitarren erakustaldixe eta txokor batzie. Eta probazalientzako asto probak arratsaldien. Goitako San Juan jaixetako egitaraue osatu barik dago ondiok, baina zeozer aurreratu geinke. 24en, barixekuen, urtero lez, bertso afarixe Zumarra elkartien; Zapatuen herri kirolak antolatzeko asmotan die eta domekan, 26xen, dantzarixek, trikitilarixek eta segalarixek be izengo die. Dana dala, programie laster egongo da kalien eta orduan jakingo dogu zelako jaixek prestau dittuen goittarrek.

Animatu ta hurreratu auzuetako jaixetara!

## FUTBITO TALDIE

Txalotzekue da Mallabiko Bastida Futbito taldeko mutillek egiten dabizan biherra. Aurten be, laugarren aldiz segixen, kategorixaz igotzie lortu dabe. Eta holan, datorren urtien Liga Nazionalien jokatu ahal izengo dabe. Horrez gain, ta honetan be Karlosen lan haundixai esker, frontenis txapelketako finala be jokatu barri da, eta honezkero martxan dago Teniseko Open txapelketie, ekainaren 6tik 25era jokatuko dana. Eta futbito maratoi zalientzako be badago aukerie: euskeraren aldeko maratoi bi antolatu dittue-eta futbito taldekuek, bata gaztetxuentzako, maiatzan 21ien eta bestie nagusixendako, ekainaren 2, 3 eta 4en jokatuko dana. Azken honetan gaiñera sari edarrak egongo die parte hartzen dabenentzako.

## PELOTA EGUNE

Maiatzaren 28xen, Mallabiko Pelota Eskoliek Pelota Egune ospatuko dau frontoien. Goizien, 11ak aldera, umientzako jolasak egongo die. Umiekin batera, azken orduko aldaketarik ez bada suertatzen, pilotari profesionalak jardungo dabe: Asegarceko Oinatz Bengoetxea eta Ruben Beloki; baitte Aspeko Aitor Zubieta eta Aritz Lasa be. 12.30ean, jolasen ostien, kamiseta, pilota eta bestelako materixelen zozketa egingo da. Goizai amaierie emoteko, pilotari profesionalek autografuek sinatuko dittue. Arratsaldera begire, Pelota Eskolako nesken partidaren bat antolatzekotan ere badabiz, oraindik zehaztu barik dauena. Honetaz gain, 17.00etan pala partidue egongo da. Bertan munduko pala txapeldunek elkar ikusiko dabe: Itsaso Pradera mallabitarra, Maite Ruiz, Haizea Zamora eta Nagore Arozena.

## VIII. BIHARKO IZARRAK FINALA

Otsailaren 24en emon jakon hasierie VIII Biharko Izarrak Txapelketiari. Bertan 24 pilotari gaztek partu hartu dabe. Momentuen, azken fase eta semifinalak jokatzen dabiz; Finalera helduko direnak ondiok ezagutzen ez dien arren, finala ekainan 3en, barixekuen, gabeko 21.30ean jokatuko da.

## HERRIKO TABERNAN UDABERRIKO KONTZIERTUEK

Mallabiko Herriko Tabernak maiatzaren 28an udaberriko kontziertuek antolatu dittu. 22.30ean hasiera emongo jakon Kontzertuen 'Mursego' izen artistikodun Maite Arroitajauregi biolontxelo jotzaileaz gain, 'The Wornouts' taldie be han izengo da.















## TXINDURRI EGUNA EKAINAREN 11 ETA 12AN EGINGO DA

Txindurri txistu eta dantza taldearen eguna ekainaren 11 eta 12an ospatuko da. Larunbatean, 19.30ean 'Plazara dantzara' egingo da Agirrebeña anai-arrebekin eta 21.00etan, larraindantza herrikoia dantzatuko da. Domekan, 10.00etan diana joko da eta 11.00etan dantzari eta txistulariek kalejira egingo dute. 12.30ean dantza erakustaldia egingo da plazan eta jarraian bazkaria izango dute dantzariek Aritzmendi pilotalekuan.

## ASTEBURUPASA TAFALLALDEAN BERBALAGUNEKIN

Maiatzaren 27tik 29ra Uxue, Olite eta Pitillas ezagutzeko aukera izango dute berbalagunkideek, besteak beste. Bidaia parte hartzaileen kotxeetan egingo da eta aurreikusitako gastua 45 eta 20 eurokoa da (nagusi eta umeentzat, hurrenez hurren). Ostatua, aldiz, doan izango dute. Informazio gehiago 639414205 telefonoan edo ermua_berba@aek.org helbidean.

# Elkartasun ekimenak burutuko dira Ermuan



Maiatzaren 27an, ostirala, 'Elkartasun afaria' egingo da Batzokian. Ekuadorren dagoen Eguarbitza eskolara eta Ermuko misiolariek burutzen diharduten proiektuetara bideratuko da Ermuko parrokiak antolatutako afari honetan jasotako diru guztia. Hitzordua 20.30ean da eta afaria hasi aurretik proiektu horien aurkezpena egingo da. Interesa dutenek aldez aurretik hartu beharko dute sarrera elizan (7€), eta, nahi dutenek, gainontzekoekin konpartitzeko janaria eraman dezakete. Bigarren afaria izango da aurtengoa eta iaz 250 lagun inguru bildu ziren bertan. Maiatzaren 30etik ekainaren 4ra, berriz, XI. Immigrazio Jardunaldiak egingo dira. Egitarauaren barruan zinea ('14 kilómetros' maiatzaren 31n eta 'Azur & Asmar' ekainaren 2an) eta hitzaldiak ('Krisia eta immigrazioa', ekainaren 1ean eta 'Genero arrazoiak direla-eta, emakumeen asilo politikoa' hilaren 3an) izango dira. Jardunaldiak ekainaren 4an bukatuko dira, plazan egingo den kultur-arteko jaiarekin batera.

# Lortu dugu!



Lekeitio aldetik jaso dugu berria: onik amaitu da Ronan mutikoarentzat plastikozko tapoiak eta telefono mugikorren karkasak biltzeko ekimena. Milioika tapoi jaso ostean, -elkartasunezko milioika keinu txikiren ondorio-, tente egotea ahalbideratuko dion bipidestadorea erostekо haina tapoi bildu dute eta amaitutzat ematen dute beraien laguntza deia. Gutuntxo hau bidali digute: *"Aupa!. Hemen gaude denok, finean ibili garenok lonjan tapoiekin, Villa garraiolariarekin azken argazkian. Zortzi bidaia egin ditu guztira eta gure helburua lortu dugunez, ez dugu tapoi gehiagorik bilduko. Baina errelebo bik irten dute eta eskertuko dizuete zuen laguntza. Musu bat eta eskerrik asko denoi"*. Erreleboa hartu dutenak: www.aitzina.org eta colaboraconiker@yahoo.es

# Txabi Arnalen liburua, munduko politenen artean

Txabi Arnal idazle ermuarrak idatzi eta Hassan Amekan ilustratzaile irandarrak sortutako 'Caja de cartón' liburuak, hainbat sari jaso ditu aurten. Venezuelako 'Banco del Libro'k Hispanoamerikan argitaratutako umeentzako libururik onenen artean sailkatu du Arnalena. Municheko 'Internationale Jugend bibliothek'-ek, berriz, 'The White Ravens 2011' katalogoan ipini du, mundu osoko liburu politenen artean egoteagatik. Ipuina ume eta gazte-literaturan ohikoak ez diren gaietan murgiltzen da: giza ezberdintasunak, immigrazioa… Istorio dramatikoa kontatu arren, elkartasunaren ikuspegitik itxaropenari lekutxo bat egiten dio.

# Irakurketa kluben azken saioak

Ermuko Udal Liburutegiak antolatutako irakurketa klubei amaiera eman zaie maiatzean. 2010eko abendutik hona 12 saio egin dira (6 euskaraz eta 6 gazteleraz) eta 48 partaide egon dira guztira. Urriaren lehen astean ekimena martxan ipiniko da berriro ere eta interesa dutenek Liburutegian eman beharko dute izena.



Drogetenitturri, 190 zkia.






# Udal hauteskundeak
# 2011ko maiatza




Carlos Totorika


Lorena López


Félix Prol


José Luis Clemente


Natividad Alonso


José Luis Araujo


Miguel Ledesma


Fernando Lecumberri


Virginia Arroyo


Fco. Javier Pérez


Mónica Marín


Jesús M. Sarasua


Manuel Graña


Iker Saenz de Zaitegi


Jon Salvador Gisasola


Arritokieta Araiztegi


Rosa María Caballero

## Ermuko zinegotzi berriak

drogetenitturri

# Hauteskundeetako emaitza konparatuak (ERMUA)

**2007**
Hautesle-errolda: 13.524

| | Botuak | % |
|---|---|---|
| **PSE-EE** | 3.709 | 48,66 |
| **PP** | 1.559 | 20,45 |
| **EAJ** | 1.055 | 13,84 |
| **EB-B** | 924 | 12,12 |
| **EA** | 246 | 3,23 |
| **Baliogabeak** | 492 | 6,06 |
| **Zuriak** | 129 | 1,59 |
| **Boto emaileak** | 8.114 | 60 |

**2011**
Hautesle-errolda: 13.191

| | Botuak | % |
|---|---|---|
| **PSE-EE** | 3.036 | 37,67 |
| **PP** | 1.647 | 20,44 |
| **EAJ** | 1.027 | 12,74 |
| **EB-B** | 733 | 9,10 |
| **Bildu** | 1.429 | 17,73 |
| **Baliogabeak** | 105 | 1,29 |
| **Zuriak** | 187 | 2,29 |
| **Boto emaileak** | 8.164 | 61,89 |

**BATZAR NAGUSIAK 2011**

**Bizkaia:**
EAJ: 22 Bildu:12
PSE-EE: 9 PP: 8

**Gipuzkoa:**
Bildu: 22 EAJ: 14
PSE-EE: 10 PP: 8

**Araba:**
PP: 16 EAJ: 13
Bildu: 11 PSE-EE: 9
EB-B: 2

## Ermuko datu ofizialak sekzioz sekzio

### 1 .SEKZIOA

VI. Centenario 9-19/10-12, Santiago 1-3/2-4, Probaleku 3-5/2-6, Torrekua1-2, Zerukoa 2. Kalea 1, Zubiaurre 5-31.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 303 | **PSE-EE** | **228** |
| PP | 126 | **PP** | **94** |
| EAJ | 106 | **EAJ** | **107** |
| EB-B | 89 | **EB-B** | **55** |
| EA | 23 | **Bildu** | **134** |
| BALIOGABEAK | 52 | **BALIOGABEAK** | **10** |
| ZURIAK | 12 | **ZURIAK** | **17** |

### 2 .SEKZIOA

Gipuzkoa etorb, 9-13/7-41/50-80

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 318 | **PSE-EE** | **246** |
| PP | 110 | **PP** | **120** |
| EAJ | 81 | **EAJ** | **66** |
| EB-B | 72 | **EB-B** | **48** |
| EA | 8 | **Bildu** | **69** |
| BALIOGABEAK | 28 | **BALIOGABEAK** | **7** |
| ZURIAK | 10 | **ZURIAK** | **13** |

### 3 .SEKZIOA

Gipuzkoa etorb. 6-48

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 471 | **PSE-EE** | **346** |
| PP | 190 | **PP** | **219** |
| EAJ | 68 | **EAJ** | **76** |
| EB-B | 80 | **EB-B** | **85** |
| EA | 14 | **Bildu** | **70** |
| BALIOGABEAK | 30 | **BALIOGABEAK** | **9** |
| ZURIAK | 9 | **ZURIAK** | **15** |

### 4 .SEKZIOA

Abeletxe1-23/2-24, Bizkaia etorb. 2-6, Erdikokale 1-21/2-10, Erdikokale zeharbidea, Gipuzkoa etorb. 1-5, Goienkale 2-10/3-5, Iparragirre 1-13BIS, Izelaieta 1-21/2-40, Komentukua 1-3, Valdespina 4-8/1-5, Orbe 9-11/10, Santiago plaza 1-2, Zubiaurre 2-4.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 207 | **PSE-EE** | **217** |
| PP | 106 | **PP** | **131** |
| EAJ | 78 | **EAJ** | **96** |
| EB-B | 66 | **EB-B** | **70** |
| EA | 28 | **Bildu** | **197** |
| BALIOGABEAK | 57 | **BALIOGABEAK** | **8** |
| ZURIAK | 10 | **ZURIAK** | **16** |

### 5 .SEKZIOA

Goienkale 12, San Isidro 1-15, San Roke 1-15/2-12, Santa Ana 1-2-3 kaleak, Elorreta bidea 1-9.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 199 | PSE-EE | **185** |
| PP | 98 | PP | **89** |
| EAJ | 85 | EAJ | **82** |
| EB-B | 48 | EB-B | **34** |
| EA | 17 | Bildu | **125** |
| BALIOGABEAK | 38 | BALIOGABEAK | **6** |
| ZURIAK | 7 | ZURIAK | **7** |

### 6 .SEKZIOA

Goienkale 41-43, Okinzuri 1-13/2-4, Errekalde bidea, Zerukoa 1-2-3 kaleak, Zubiaurre 35-39/44-52.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 383 | PSE-EE | **300** |
| PP | 152 | PP | **159** |
| EAJ | 75 | EAJ | **66** |
| EB-B | 60 | EB-B | **55** |
| EA | 8 | Bildu | **104** |
| BALIOGABEAK | 55 | BALIOGABEAK | **5** |
| ZURIAK | 7 | ZURIAK | **10** |

### 7 .SEKZIOA

Aldapa 2-8, Errabalburu, Ongarai.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 357 | **PSE-EE** | **278** |
| PP | 175 | **PP** | **170** |
| EAJ | 92 | **EAJ** | **78** |
| EB-B | 106 | **EB-B** | **89** |
| EA | 25 | **Bildu** | **135** |
| BALIOGABEAK | 37 | **BALIOGABEAK** | **8** |
| ZURIAK | 17 | **ZURIAK** | **16** |

### 8 .SEKZIOA

Andaluzia zeharbidea, Bizkaia etorb. 8, VI Centenario 1, Diputazio 3-13, Komentukua 2, Valdespina 7-9/8BIS-16, Probaleku 7, San Inazio, Zeharkale 2-24.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 436 | **PSE-EE** | **364** |
| PP | 204 | **PP** | **231** |
| EAJ | 160 | **EAJ** | **143** |
| EB-B | 138 | **EB-B** | **70** |
| EA | 44 | **Bildu** | **206** |
| BALIOGABEAK | 71 | **BALIOGABEAK** | **17** |
| ZURIAK | 16 | **ZURIAK** | **35** |

### 9 .SEKZIOA

Areitio bidea, Bizkaia etorb. 1-35, Ureta baserria, Zeharkale 1-33.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 394 | **PSE-EE** | **334** |
| PP | 136 | **PP** | **152** |
| EAJ | 91 | **EAJ** | **93** |
| EB-B | 87 | **EB-B** | **69** |
| EA | 29 | **Bildu** | **111** |
| BALIOGABEAK | 35 | **BALIOGABEAK** | **12** |
| ZURIAK | 17 | **ZURIAK** | **17** |

### 10. SEKZIOA

Cantabria zeharbidea, Orbe 5-7/2-8, Goienkale 7-39, Karabixa, Zubiaurre 12-40.

| | 2007 | | 2077 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 278 | **PSE-EE** | **210** |
| PP | 128 | **PP** | **131** |
| EAJ | 130 | **EAJ** | **120** |
| EB-B | 87 | **EB-B** | **62** |
| EA | 24 | **Bildu** | **121** |
| BALIOGABEAK | 52 | **BALIOGABEAK** | **18** |
| ZURIAK | 13 | **ZURIAK** | **12** |

### 11 .SEKZIOA

Aldapa 1-19, VI Centenario 5-7, Diputazio 8-14, San Pelaio 5-15/2-42.

| | 2007 | | 2011 |
|---|---|---|---|
| PSE-EE | 363 | **PSE-EE** | **328** |
| PP | 134 | **PP** | **151** |
| EAJ | 89 | **EAJ** | **100** |
| EB-B | 91 | **EB-B** | **96** |
| EA | 26 | **Bildu** | **157** |
| BALIOGABEAK | 37 | **BALIOGABEAK** | **5** |
| ZURIAK | 11 | **ZURIAK** | **29** |

# Mallabiko zinegotzi berriak



M. Milagros Mondragon



Unai Uzuriaga



Joseba Koldo Pradera



Jose Luis Arriaga



Xabat Areitioaurtena



Jesus Gisasola



M. Itziar Garitagoitia



Igor Agirre



M. Josune Txakartegi

## HAUTESKUNDEETAKO EMAITZA KONPARATUAK (MALLABIA)

**2007**
Hautesle-errolda: 1.004

| | Botuak | % |
|---|---|---|
| **EAE** | 339 | 48,36 |
| **EAJ** | 271 | 38,66 |
| **PSE-EE** | 66 | 9,42 |
| **PP** | 23 | 3,28 |
| **Baliogabeak** | 11 | 1,54 |
| **Zuriak** | 2 | 0,29 |
| **Boto emaileak** | 712 | 70,92 |

**2011**
Hautesle-errolda: 986

| | Botuak | % |
|---|---|---|
| **Bildu** | 363 | 50,56 |
| **EAJ** | 301 | 41,92 |
| **PSE-EE** | 31 | 4,32 |
| **PP** | 12 | 1,67 |
| **Baliogabeak** | 8 | 1,10 |
| **Zuriak** | 11 | 1,53 |
| **Boto emaileak** | 726 | 73,63 |

**Hauteskundeen data:** 2011ko maiatzaren 22a.

* Portzentaiak kalkulatzeko ez dira boto baliogabeak kontuan hartu.

**KOORDINAZIOA:** Dorleta Vidal

**LAGUNTZAILEAK:** Amaia Arriaga, Pello Mugarza eta Jon Uribe.

**INPRIMATEGIA:** Gertu Koop (Oñati)

**TIRADA:** 2.250 ale

*Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak diruzlagundutako aldizkaria*

BFA DFB

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA

OBREN KOORDINAZIOA • MARIAN CARRACEDO DEKORATZAILEA

PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK

dekorazio estudioa

**trastévere**

barruko dekorazioa

san pelaio, 26 ermua
tel/faxa. 943 17 90 89
trastevere@wanadoo.es

ALTZARI I OSAGARRIAK...

## ITURGINTZA

FONTANERIA **B. DE DIOS**

**Baimendutako instalatzaileak**

iturgintza, gasa, kalefakzioa eta petrolio produktuak

Komunetako altzariak eta osagarriak

Gipuzkoa etorb., 48 - behea
Tel/Fax. 943 17 01 09
E-maila: bdedios@euskalnet.net

## ELEKTRIZITATEA

**β BETA**

**ARGIZTAPENA**
**ELEKTRIZITATEA**

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 — 943 17 65 25 / 689 23 31 71

## ERROTULAZIOA

**ROTEK rótulos**

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea (Mallabia)
☎ eta Faxa: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

## ITURGINTZA

ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA

**LUIS VALLE**



Bainugelen erakusketa
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56

Goienkale z/g

## PERTSIANAK



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK.

TAILERRA:
Zearreko buelta 2
943 17 66 34
630 01 13 41

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60

## SERRAILAGINTZA

K21

SEGURTASUNA
**GILTZAK**
SARRAILAGINTZA

- Era guztietako sarraila eta segurtasun kutxen SALMENTA eta MANTENUA.
- Sarrailen EGOKIPENAK.
- Era guztietako giltzen KOPIAK.
- Segurtasun eta iheserako INSTALAKUNTZAK.
- Trabatutako ateak ASKATZEN ditugu.

**Urgentzietarako ZERBITZUA:**
**943 701391**
**- 8etatik 24etara -**

Arragueta 3 (Eibar) - 943 701 391
www.giltzak.com

## TELEKOMUNIKAZIOA

**Cable Spot**

**Zure antena TDTra egokitu.**
**ETEN ANALOGIKOA**
**GERTU DAGO!**

- Antena kolektiboak
- Atezain automatikoak
- Telefonia mugikorra.
- Zuntz-optikoa.
- Banda zabala.
- Kable telebista...

euskaltel

**ERMUA. San Pelayo 4 behea.**
**943 172314**



**M&A.decor**

**Portugaleko altzariak**
**Egurrezko altzarigintza eta diseinua**

*- Neurrira egindako altzariak.*
*- Lurrak, tarimak eta parketa ipintzen dugu.*
*- Etxebizitza, taberna, bulego eta jatetxeetarako altzariak*



Goienkale 11, behea (Ermua) 943173958 / 662385657
m.a.arteydecor@gmail.com



**Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu, deitu:**

# 943 17 93 50 edo 688 63 28 76

### Pantxo Bedialauneta, 'Urrezko Arzak' sariaren irabazlea:

# "Pintxo guztiek dute bere momentu eta bere publikoa"

**Ekainaren 13 eta 19a bitartean XI. Jardunaldi Gastronomikoak egingo dira Ermuan eta horien barruan herriko tabernen arteko pintxo lehiaketa burutuko da. Pantxo Bedialauneta sukaldaria epaile izango da bertan.**



Mexikon jaio zen duela 38 urte. Ama mexikarra zuen eta aita euskalduna. 15 urterekin, Tijuana utzi eta Ondarroara bizitzera joan zen Pantxo eta azken 5 urteak Cantabrico tabernan eman ditu (Antiguoko ama 7 kalean). Euskal hiztuna da eta 2007an munduko pintxorik onenaren saria jaso zuen, 'Urrezko Arzak' saria.

***- Nolako zaporea du munduko pintxorik onenak?***

Klasikoa, etorkizuneko kutsu batekin. 'Txipiroiak bere espresiorik handienean' du izena eta Ondarroa gaur egun nola ikusten dugun erakusten du, kanpotik etorritako jende asko hartu eta gero. Hainbat osagai ditu, Extremadurako pistoa, esaterako.

***- Saria irabazi eta gero, pintxoen munduan jarraitu izan duzu?***

Bai, iaz Euskadi eta Espainiako txapelketetan parte hartu genuen eta 70 lehiakideen artean lehen 10en artean geratu ginen Euskadin eta 7. edo 8.ak Espainian. Oso emaitza onak dira.

***- Zergatik erakartzen zaitu pintxoak?***

Ez dakit, neure buruari askotan egin izan diot galdera hori. Prezio eta formatua dela eta jende askorengana heldu zaitezke. Goi mailako sukaldaritza, aldiz, jende gutxiagorentzat egiten da.

***- Ermuan hainbatetan egin izan duzu epaile lana, ezta?***

Bai, eta ikaragarria da pintxo kontuetan herrian egon den bilakaera. Azken urteetakoak askoz ere zainduagoak daude, aurkezpena, batez ere.

***- 27 lehiakide egongo dira Ermuan. Zer baloratzen da pintxo batean?***

Zoritxarrez, lehen puntua aurkezpena da, jarraian zaporea hartu behar da kontuan eta gero gauza txiki asko: pintxoak eskatzen duen lana, produzitu daitekeen kopurua…, oreka bilatu behar da.

***- Tradizionala ala joera berriei heltzen dizkion pintxoa nahiago duzu?***

Pintxo bakoitzak bere momentu eta bere jendea du. Goizeko kafearekin tortilla jan dezakezu eta arratsalde partean, lagunekin patxadan zaudenean, zerbait bereziagoa jateko gogoa izan dezakezu.

Dorleta Vidal


















# BEGOÑA LAKA

***- Noiz eta zer dela eta etorri zineten Ermura bizitzera?***

1943an etorri ginen, nik bost urte nituenean. Gure aita Lekeitioko kontratista batentzako ari zen lanean hemen inguruan. Astelehenetan etortzen zen bizikletan eta Trakenean egiten zuen lo. Azkenean aita bere kabuz hasi zen eta Ermua etorri ginen bizitzera.

***- Zelan gogoratzen duzu orduko Ermua?***

Ermura ilunabarrean heldu ginen. Plazan eta inguruetan argi gutxi zegoen eta lehenengo inpresioa izan zen leku tristea zela. Gero zoragarri, ez daukat Ermua saltzeko.

***- Nolako haurtzaroa izan zenuen?***

Ederra, gu edozer gauzarekin konformatzen ginen. Hori bai, zulo guztiak ikusten ibiltzen ginen. Inori ez zitzaion ezer gertatu zorionez!

***- Bidaiatzea betidanik izan duzu gustuko?***

Txikitan eskolan geografia izugarri gustatzen zitzaidan. Aginako abade baten liburutegian alemanez zegoen Atlas bat topatu nuen. Orduan munduko bazter guztiak non zeuden ikasi nuen.

***- Eta aukera egon denean edo dagoenean bidaiak egin eta egiten dituzu.***



**Lekeition jaio zen orain dela 72 urte. Lau neba-arreben artean bera da gazteena. Bost urterekin Ermura etorri zen eta harro dago Ermuan bizitzeaz. Lau seme-alaben ama. Bidaiatzea da bere zaletasun handienetakoa eta ahal duen guztietan egiten ditu bidaiak.**

Alberto gizona eta bioi gustatu izan zaigu. Ezkondu ginean gure eztei bidaia Erromara egin genuen. Berak osaba zeukan han eta nik lehengusu bat. Senitartekoak ezagutzeko aitzakiarekin, gure aitak ordaindu eta autobusez joan ginen Bilbotik irten eta milaka geldialdi eginda. Itzela izan zen. Toulouse, Marseilla, Lourdes, Niza, Cannes, Genoa (Genova), Florencia, Venezia, Milan eta Erroma ikusi genituen besteak beste.

***- Seme- alabak txikiak zirenean ere ibiltzen zineten?***

Albertori bolantea asko gustatzen zitzaion. Nik mapa eskuan eta Alberto bolantean, umeekin asko ibili gara hemengo inguruak ezagutzen. Gero, Alberto eta biok nire neba eta ahizpekin. Alberto hil eta urtebetera, seme alaba gazteenekin eta haren lagun batekin Parisen egon ginen. Handik aurrera, abesbatzakoekin, zentroko emakumeekin, alargunekin hara eta hona ibili naiz: Lisboa, Cordoba, Granada, Sevilla, Mediterraneoa, Bartzelona, Egipto, Londres, Ginebra, Brusela, Brujas, Gante, Amsterdam, Orleans, Bavaria, Munich, Frantziako Bretainia, Berlin, San Petersburgo eta Moskun, besteak beste.

***- Nora joango zinateke?***

Edozein lekutara, baina Istanbul eta New York- era joatea gustatuko litzaidake.

***- Kantua ere zure zaletasunetako bat da.***

Ume umetatik, kantuan eta dantzan eta dantzan eta kantuan ibili naiz. 1990ean Pispillun sartu eta ahotsa dagoen bitartean han egongo naiz.

***- Aisialdian…***

Irakurtzea, antzerkia ikustea, zinea ikustea, gurutzegramak egitea, eskulanak egitea…

***- Baikorra zara?***

Bai. Azken 15 urteetan egin dudana gizona eta semea galdu ondoren, ezinezkoa litzateke bestela.

***- Nola egin aurre bizitzan momentu latzei?***

Nire kasuan, adrenalina dosi bat sartu izan balidate bezala, horrelako amorruarekin egin dut aurrera.

***- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?***

Gerrek.

***- Zerk pozten dizu eguna?***

Jendearekin berriketan egiteak.

***- Zein albiste gustatuko litzaizuke irakurtzea egunkarian?***

Munduan bakea lortu dela.

Alazne Aiestaran

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

OUTUMURO
Kafetegia
Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

DQ
Mouth

# Harrijasotzaile gazteen harrobia



**Asteartero, iluntzeko 8etatik 9etara argia sumatzen da Trabakuko errepidetik. Jose Antonio Gisasola 'Zelai'-ren etxea da. Makina bat urtez harri-jasotzaileen artean izar handia izan dena, egun 3 gazterekin ari da irakasle lanetan. Hiru ikasle fin ditu aurrez aurre. Bere semea Jon, Ermuko Haritz Etxebarria eta Abadiñoko Mendiola auzoko Urdax Magunazelaia.**

**Urdax Magunazelaia** da hiruretan zaharrena. 13 urte ditu eta abuztuan beteko ditu 14 urte. Jaiotzez Abadiñoko Mendiola auzokoa da, gaur egun Otxandion bizi den arren. 5 urte daramatza harria jasotzen. Hasierako urteak Abadiñon eman zituen eta ondoren Zelairekin hasi zen. Aita izan du alboko urte askotan baina haren heriotzaren ostean, amak hartu du lekukoa. *"Aurrerapen handia"* egin duela aitortzen du. Horren adierazle, pasa den maiatzaren 15ean, Ispasterren 150 kilo altxatzea lortu zuen. *"Etorkizun handia du"*, aitortzen du bere entrenatzailea den Zelaik. Lehenago, 2 aldiz etortzen zen entrenatzera baina azkenaldian asteartetan soilik etortzen da Mallabira. Uda garaian jaialdiak izaten ditu eta neguan markak egiteko sasoi egokiagoa dela dio. Perurena, Goenatxo eta Aimar izan ditu eredu eta gorputz handia duenez, 'harri handietan' segi nahiko luke. Autoak maite ditu ere eta mekanika ikasketak burutu nahiko lituzke.

**Haritz Etxebarria**, Ermukoa da, Ureta baserrikoa. 11 urte ditu eta 8 urterekin hasi zen harria jasotzaileen munduan. Abadiñon eman zituen lehen pausoak eta hango eskola bertan behera geratu ostean, Zelairekin hasi zen entrenatzen. Gustukoen duen harria, harri kubikoa da eta gutxien bola. Harrijasotzeaz gain, txirrindularitzan ere ari da eta bata bestearen osagarri gisa sumatzen ditu, bere esanetan, *"zangoetan indarra beharrezkoa delako"*. Etxekoen animoak eta bultzada baditu eta honetan luzaroan segi nahiko luke.

**Jon Gisasola**, Mallabitarra da eta 12 urte ditu. Aizkoran hasi zen, oso gazte lehenik baina harria, beti izan duela gustuko aitortzen du bere aita eta entrenatzailea den Zelaik. Gaur egun, harrijasotzeaz gain, aizkoran eta esku pilotan ere ari da. Aitaren antzera, harri zilindrikoa du bere harria. 45 kiloko harri zilindrikoa, 50 kiloko kubikoa eta 35 kiloko bolarekin egiten ditu entrenamenduak. Haritz laguna du eta berarekin batera animatu zen. Urtean zehar, zenbait plaza egiten dituzte Euskal Herrian eta udaran, Bartzelonara ere joanak dira.

**Jose Antonio Gisasola 'Zelai'**, pozik ageri da sortu duen taldetxoarekin. *"Talde izaerari eustea da gakoetako bat"*, dio. Makina bat gazte pasa dira urteetan bere eskuetatik baina harrijasotzen, beste bizitzako alorretan bezala, *"konstantzia eta lana dira gakoak"* gaineratzen du. Halako maisuarekin, Jon, Urdax eta Haritzi ez zaie aholku onik faltako.

Asier Ibaibarriaga

NATURHOUSE
NUTRICION Y DIETETICA
"Adituak gara ondo elikatzen irakasten"
AINARA IRIONDO ANSOLA
Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatua
Komentukua 1, behea
943 17 63 72

KRABI
Ileapaindegia
Estetika
Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Yoga eskola
Sanatana Dharma
* Osteopatia.
* Bertebrologia
* Anginak sendatzeko masajea...
San Roke 24, behea · 943748593
685722131 (Idoia) 639652729 (Lourdes)


ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

• Depilazioa
• Elektrologia
• Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
• Masajeak
• Pedikura
• Manikura (parafinarekin)
• Solariuma
• Laser depilazioan espezializatuak
• Kontsulta mediko-estetikoa
Aldapa 1 943 17 60 52

# Zergatik jasan behar usainak?



Ana Gómez

Zerbaiten usaina hartzen dugula diogunean, gas, lurrin eta hauts mota ezberdinak biltzen dituen konposizioaz ari gara. Eta horrek gure zentzumen-gaitasunean eragin zuzena du.

Ermuan hamaika usain hartzera ohitu gara, zirkulaziotik eta industrien jardueretatik datozenak, besteak beste. Horietariko batzuk eguraldiarekin lotu ditzakegu: euria egin behar duenean, esaterako, Iurretako paper-fabrikak botatzen duen usaina etortzen da gurera.

Saihesbidea eraikitzen dutenean, ibilgailuek aireratzen duten kutsadura desagertu egingo da neurri handi batean; horrekin batera, zirkulazioaren gasekin lotutako usainak murriztu egingo dira.

Industrien kasuan, berriz, irtenbidea ez da hain erraza. Neurri zehatzak ezar daitezke (enpresa bakoitzak isurtzen dituen gasen tratamendua, esaterako) edo neurri orokorrak, hala nola hiriguneetan dauden enpresak bizilagunengandik urrunago dauden industrialdeetara lekuz aldatzea.

Baina irtenbide horiek ezin dira arinkeriaz hartu eta aurretik ikerketak egitea ezinbestekoa da. Horiei esker, neurrien eraginkortasuna bermatuko da eta dirua modu onean erabiliko dela ziurtatuko da.

Usainen azterketak egiten eta irtenbideak bilatzen adituak diren hainbat enpresa daude Europan; hemen, aldiz, duela gutxi hasi gara gai honetaz hitz egiten. Izan ere, usainez arduratzen den enpresa sortu berri da Eibarren, ingurugiroan aditua den enpresa eibartarra eta usainetan aditua den enpresa holandar baten elkarlanari esker (Odournet-Tek, SL).

Eta nola neurtzen dituzte usainak? Bada, poltsa berezi batzuetan usainak gordetzen dituzte eta jarraian 'entrenatutako sudurrek', hau da, aholkulari batzuek, usaintzen dutena zehazten dute.

Gaur egun, legediak ez die usainei mugak jartzen, ez Euskadin ezta estatuan ere. Baina Europako beste herrialde batzuetan aspaldidanik dihardute lanean usainekin eta Katalunian lege-aurreproiektu bat lantzen ari dira.

Denborarekin aipatutako muga horiek ezarriko dira, baina momentuz gai hau gure ardurapean dago. Gure inguruan aire garbia izatea exijitzeko eskubidea dugu, hau da, bizitza kalitatea, eta gure eskubidea da Administrazioari helburu hori lortzeko lanean has dadin eskatzea.

> **"Nola neurtzen dira usainak? Poltsa berezietan gorde eta 'entrenatutako sudurrei' esker"**





IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen

TXINDURRI ERMUA

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

LURPE LURPE
ERMUA ERMUA

Enter INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINTZA BEREZIA OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA



Ekainaren 2a
Zorionak Jon! Asko maite zaitugu. Aita, Aiur eta amaren partez 7 musu handi.



Apirilaren 15a
Zorionak Aritz zure urtebetetzean. 6 urte bete dituzula!!!! Musu handi bat osaba Oscarren partez.



Maiatzaren 23a
Zorionak Aratz!!! Maddi, amatxo eta aitatxoren partez. Askoz gehiago bete ditzazula!



Maiatzaren 24a
Zorionak June zure bigarren urtebetetzean. Aita, ama eta familia guztiaren partez.



Apirilaren 27a
Zorionak Maitetxu. Jada 7 urte!!! Musu erraldoi bat Ainhoa, ama eta aitaren partez.



Maiatzaren 23a
Atzo zalakuen eta... 11 urte!! Zorionak 'txipristiña', Andere, amatxo, aitatxo eta denon partez.



Maiatzaren 5a
Zorionak Bingen zure urtebetetzean familia osoaren partez.



Maiatzaren 15a
Zorionak Maialen zure urtebetetzean familia osoaren partez.



Maiatzaren 14a
Zorionak Aner, aita, ama eta Lukasen partez.



Maiatzaren 6a
Zorionak Kimetz eta musu bat familia guztiaren partez, batez ere, Iratiren partez.



Ekainaren 11
Zorionak Oier. 3 urte bete dituzula!! Musu eta besarkada handi bat osaba Oscarren partez.



Maiatzaren 27a
Zorionak Jone, amatxo, aitatxo eta Garaziren partez.



Maiatzaren 28a
Zorionak Isabel! Ondo pasa zure eguna, asko maite zaitugu. Musu bat zure ahizpa eta loben partez.



Ekainaren 4a
Zorionak Nelia zure urtebetzean euskaltegiko ikaskideen partez. Ondo pasa! Muxu bat.



Ekainaren 6a
Zorionak Lia klaseko lagunen partez. Ondo pasa zure egunean. Patxo bat.



Ekainaren 27a
Zorionak ama. Ongi etorri Ermura! Rua, Tatiana, Pilar eta Liaren partez. Muxu handi bat!



Maiatzaren 31
Zorionak Olatz (txokolatera) zure 3. urtebetetzean familia osoaren partez!!

Ekainaren 22a
Zorionak Jose! Ondo pasa eta muxu handi bat zure gelakoen partez.

**Azken eguna: Ekainaren 13a**

URRETA burdindenda
✖ Etxea ✖ Giltzak
✖ Tresneria ✖ Zerrailgintza
✖ Brikolaia ✖ Kit altzariak
✖ Rielak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Ardo banatzailea:
Riedel
Avgvstvs
Clos Mogador
Yllera
Cantosan
Luis Cañas
Hugel&Fills
Anima Negra
Irache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona
DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea
Erdikokale, 19
Telefonoa 943 17 22 43
48260 ERMUA
(Bizkaia)

ARRIETA CORDEVI
Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatuak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

IZOTZ
IZOZTUAK
ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101
ARRASATE
Merkatua
943770598

## MALLABIA



Argazki hau San Antonio egun baten aterata dago, Ereña aurrien, Urkiolara doazela. Bertan agertzen dira:
Goian: Angel Astarloa, Desiderio Arriaga, Ramon Aldalur, Jose Abendibar, Benancio Abendibar eta Julian Albino Pradera.
Behean: Eustakio Markina, Jesus Intxaurraga, Jose Mari Mallabiabarrena eta Luis Mujika.

## ERMUA 1966



Lorenzo Goitandia eta Carmen Fernández Zeharkalen, beraien seme-alabekin: nagusienetik hasita Loren, Raul, Dori eta Isma. Batetik bestera bi urteko aldea zutela ezagun-ezagun dute lauren burutxoak osatzen duten eskailera perfektoan. Amarena izandako 'Carmen bodega'ren kargu geratu zen Raul.













**Hainbat ikerketek diotenez, paseatzeak estresa uxatzen du, kaloriak erretzeko balio du eta zenbait gaixotasunei aurrea hartzen laguntzen du (diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak, besteak beste). Egunean 30 minutuko ibilaldia egitea gomendatzen digute, baina gure inguruan... Paseatzeko leku aproposik badago? Nora joaten zara paseatzera? Zer hobetu daiteke?**

---

Ez, Ermuan ez dago paseatzeko leku aproposik, eta umea izatean asko igartzen dugu. Errekalde eta Hambretik paseo politak daude, baina herrian bertan ez dago berdegunerik. Egia esan herrian ez dugu leku askorik, baina bidegorri bat egiteko ez da gauza handirik behar eta posible litzatekeela uste dut.



**Nekane Bilbao, 34 urte**



Bai, badaudela esango nuke. Ez larregi, baina paseo lasai eta erlaxatua emateko bideak badirela uste dut, Hambre eta Mallabirako bidea, esaterako. Hambreko pasealekuan euria eginez gero, putzuak sortzen dira eta hori konpondu beharra dago. Mallabirako bidean, berriz, gerizpe eza da arazoa. Herrian bertan, Zubiarre gora eta behera ibiltzen naiz, ez baitago besterik.

**Alfonso Doforno, 54 urte**



Bai. Umearekin asko paseatzen dut eta San Pelaioko parkea dotore dago orain. Kanteraraino eta Hambreraino joaten gara batzuetan, baina euria egiten duenean arazoak izaten ditugu gurasook. Ez dago leku estalirik. Ertz taberneko plazatxoa nahiko ondo utzi dute obrak bukatutakoan, baina horretaz aparte... taberna batera sartu behar duzu derrigorrez.

**Miguel Álvarez, 32 urte**

Egia esan ez dago paseatzeko leku asko. Hambrerantz joaten naiz normalean eta pasealeku berria oso ondo dagoela iruditzen zait. Herrian ez dugu beste ezer egiteko espaziorik, zulo batean gaude, mendiz inguratuta. Umeak dituztenek, San Pelaioko parkera joan behar dute ia derrigorrez umeekin paseatu nahi badute.



**Begoña Pérez, 47 urte**

Ez. Nahiz eta trafiko gutxidun inguruak egon, bideak ez daude egokituta Mallabian. Paseatzen, auzoetan ibiltzen naiz, Trabaku eta Goita inguruetan gehien bat. Herrian dauden pasealeku nagusietan espaloiak eta farolak jartzea komeniko litzateke.



**Ainhoa Mallabiabarrena, 32 urte**



Ez dago herrian paseatzeko bide aproposik. Ni neu, Muniozguren eta Oiz aldean ibiltzen naiz. Hobekuntza moduan, espaloiak egin, bide bazterrak egokitu eta bidegorriren bat egitea ere ondo egongo litzatekeela uste dut.

**Zorion Alberdi, 38 urte**






## ZINE-KLUBA

***Hilak 2:***
'Zorion perfektua'

***Hilak 9:***
'80 egunean'

***Hilak 16:***




'Sukalde kontuak'
20.30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 3€

## DANTZA

***Hilak 11:***
Plazara dantzara Agirrebeña anaiekin + Larraindantza (Txindurri eguna). 19.30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

***Hilak 12:***
Euskal dantzak: Txindurri taldea. (Txindurri eguna). 12:30ean. Orbe Kardinalaren plazan.

## MUSIKA

***Hilak 13:***
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19.30ean. Lobiano Kultur Gunean.

***Hilak 14 eta 15:***
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak. 19.30ean. Ermua Antzokian.

***Hilak 17:***
Kontzertua: Alboka Musika Eskolako ikasleak (Alboka eguna). 22.00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

***Hilak 18:***
Ermuan Kantuan (kalejira). 12.30ean. Orbe Kardinalaren plazan hasita.



## ERAKUSKETAK

***Hilaren 11ra arte:***
Margoak: Mugartea taldea.

***Hilaren 13tik 26ra:***
Margoak: Udal Margo Eskolako ikasleak.

***Hilaren 28tik 23era:***
Eskulturak: Juanjo Gurrea.

Lanegunetan 18.00etatik 20.00etara. Asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 18.00etatik 20.00etara. Lobiano Kultur Gunean.

## BESTELAKOAK

***Hilak 4:***
Kulturen arteko jaialdia: hainbat ekitaldi. 11.00etatik aurrera, Plazan.

***Hilak 12:***
Aire zabaleko margo lehiaketa. 9.00etatik aurrera.

***Hilaren 13tik 19ra:***
Gastronomiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.

***Hilak 18:***
Gastronomiari buruzko azoka. 11.00etatik aurrera. Plazan.

***Hilak 18:***
Gaua irekia: hainbat ekitaldi. 21.00etatik aurrera. Hainbat lekutan.

***Hilak 19:***
El Rocioko erromeria. 11.00etatik aurrera Beti-Ondon.

***Hilak 23:***
San Juan Sua. 22.00etan. Orbe Kardinalaren plazan.

***Hilak 25:***
Urban Gazte Jaialdia: hainbat ekitaldi. 12.30etatik aurrera. Plazan.

*Patxi López*

**Haragtegia**



**M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**
***Geure Baserrian Hazitako Txalak***
GEUK GIZENDUTAKO ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
**Ermua**

**OPTICA**
**J. CASADO**



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak
Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57
ERMUA

**MIGUEL**
**Haragtegia**



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK
Probaleku, 3
☎ 17 05 63
**ERMUA**
(Bizkaia)

hamburguesería
**TITANIK**



*Pintxo dastaketa poteoan*
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

# INDARRA
## zure etorkizunarentzat

IEFPS-GLHBI
ArmeriaEskola
"gure gero-gura gara"
EIBAR 1912-2012

- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- MANTENIMENDUA
- ELEKTRIZITATEA
- ELEKTRONIKA
- AUTOMATISMOAK
- TELEKOMUNIKABIDEAK-INFORMATIKA

*Ate irekiak: Ekainaren 2an*   *Izenematea: Ekainaren 1etik 10era*

Isasi, 36 - 20600 Eibar - Tfno. 943 20 32 44 - e-mail: eibar@armeriaeskola.com

**www.armeriaeskola.com**



Aukeratu liburu bat Udal Liburutegian, eraman etxera maileguan eta irakurriz gozatu. Itzulitakoan fitxa bete eta beste liburu bat erosi eta gozatzen jarraitzeko, %25 edo %50eko erosketa-txekea lortuko duzu.

**IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU**

Liburu sortak eta
30 €ko erosketa-txekeak
zozketatuko dira Liburutegian,
hile bakoitzeko
parte hartzaileen artean

* Apirilaren 23tik uztailaren 23ra

Euskal Birusa Elkartea
topagunea
Biblioteca Municipal de Ermua
Ermuko Udal Liburutegia




# IKASTARO TRINKOAK

uztailean eta irailean
(azterketa urrian)

**KALTXANGO AEK**
Bizkaia etorbidea 13
943 171 940 · kaltxango@aek.org

aek

**Garena ikasteko**
para entendernos
pour se comprendre

**EGA eta MAILA OFIZIALAK**